

Zentroak eta zerbitzuak aldez aurretik baimentzea

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea

Aldez Aurreko Baimenaren eskaerak urteko edozein garaitan aurkeztu ahal izango dira

Helburua

Aldez aurreko baimena, administrazioaren egintza bat da, eta horren bitartez xedatzen da titularitate pribatuak sortzeko, lekuz aldatzeko edo aldaketa garrantzitsuak egiteko bere zerbitzu eta zentroetan erabiltzaileei kalitatezko prestazioak eta arreta egokia emango zaiela bermatzeko behar diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituztela.

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagusia
- Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzua

Nori zuzenduta

Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuetako zerbitzu eta zentro pribatuen erakunde titularrak

Baldintzak

Jarduera hasi edo aldatu aurreko baldintza gisa, zerbitzua edo zentroa egokitzen zaiela tipologiaren arabera bete beharreko baldintza materialei eta funtzionalei, egoera hauetan:

Funtzionamendu baimenaren arauak bete behar dira:

- a.- Zerbitzu edo zentro bat sortu, eraiki edo instalatzeko.
 - b.- Zerbitzu edo zentro bat lekuz aldatzeko.
 - c.- Zentroetan funtsezko aldaketak egiteko (aldaketak egitea hasierako egitura edo erregimen funtzionalean).
- Aldez aurreko baimena eduki behar da udalaren obra baimena eta ondoren funtzionamendu baimena edukitzeko.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

RPG-22/6.2 Rev.:2 Eskaera (pribatuak - euskera) [Aldez aurreko baimenaren eskaera \(euskeraz\)](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

AURRETIKO BAIMENA:

- Baimen eskaera.
- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen dokumentua eta duen ordezkariaren frogagiria.
- Entitatearen eratze akta (petsona juridikoa horrela bada).
- Entitatearen estatutuak (pertsonezko juridikoa horrela bada).
- Egiten den baimen eskaerarekin zerikusia duten hartutako erabakien egiaztapenak.
- Notaritzaren eskritura, jarduera sinatzen duen pertsonaren ahalmena emanaz.
- Egin beharreko jarduerari buruzko memoria.
- Proiektu tekniko bisatua.
- Ekipamendu proiektua.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Inbertsio, Ikuskapen eta Elkarlan Zerbitzua
Ikuskapen Atala
TXARA 2

Zarategi pasealekua 99
20015 Donostia
Tel.: 943 112 688
Faxa: 943 112 622
Helbide elektronikoa: info.gizartekintza@gipuzkoa.eus

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

Eskumena duen administrazioak hiru hilabeteren barruan idatzi eta jakinarazi behar du ebazpena, baimena ematearen aldekoa edo kontrakoa, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Baimena eman edo ukatzeko prozesuan Administrazioak isiltasunaren bidetik jotzen badu, esan nahiko du baimena eman egiten duela

Administrazioaren isiltasuna

Onespenezkoa

Honen bidez jakinarazten da

» Jakinarazpena/posta-ziurtagiria

ARAUDIA

[40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa](#), E A E gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen (EHAA 63. zk., 1998ko apirilaren 2koa).

[41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa](#), hirugarren adinekoen egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzkoa (EHAA 66. zk., 1998ko apirilaren 7koa).

[202/2000 Dekretua, urriaren 17koa](#), mendekotasuna duten adinekoen eguneko zentroi buruzkoa (EHAA 214. zk., 2002ko azaroaren 8koa).

[64/2004 Dekretua apirilaren 6koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren kartaren eta iradokizunen zein kexen araubidea onartzen dituen (EHAA 76. zk., 2004ko apirilaren 23koa).

[2/1998 Legea, otsailaren 20koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zigortzeko ahalmenari buruzkoa (EHAA 48. zk., 1998ko martxoaren 11koa).

[68/2000 Dekretua apirilaren 11koa](#), hiriguneetako, gune publikoetako, eraikinetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena (EHAA 110. zk., 2000ko ekainaren 12koa).

[2177/1996 Errege Dekretua urriaren 4koa](#), eraikinak suteen kontra babesteko baldintzei buruzko NBE-CPI/96 eraikuntzako oinarritzko araua onartzen duena; eraikinetako suteen aurkako babes baldintzak (BOE 261. zk., 1996ko urriaren 29koa) (Gaztelaniaz).

[125/2005 Dekretua maiatzaren 31koa](#), adinekoentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzko dekretua aldatzen duena (EHAA 104. zk., 2005eko ekainaren 3koa).

[394/2006 Foru Agindua, ekainaren 2koa](#), Psikogeriatriako Unitateen baldintzak zehazteari buruzkoa (GAO 112. zk., 2006ko ekainaren 14koa).

[39/2006 Legea abenduaren 14koa](#), mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzekoa (BOE 299.zk, 2006ko abenduaren 15koa)(Gaztelaniaz).

[12/2008 abenduaren 5koa](#), Gizarte Zer-bitzuei buruzkoa (EHAA 246. zk., 2008ko abenduaren 24koa).

[7/2012 Legea, apirilaren 23koa](#), barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa (BOE 116.zk, 2012ko maiatzaren 15koa)(Gaztelaniaz).

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

ADIN TXIKIKOEN ZENTROENTZAT

[3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (EHAA 59. zk., 2005eko martxoaren 30ekoa).

[131/2008 Dekretua uztailaren 8koa](#), gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen (EHAA 150. zk., 2008ko abuztuaren 8koa).

Informazio gehigarria

GIZARTERATZE ZENTROENTZAT

[148/2007 Dekretua, irailaren 11koa](#), etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen (EHAA 187. zk., 2007eko irailaren 27koa).